


Astekaria



elgoi

Langileen botu eskubidea



Aranburu

Gabonetan zozketatutako URREZKO BI ERLOJUen irabazleak argazkietan ditugun **Virginia Estevez** (B-2098) eta **Juan Inazio Quintas** (C-2972) izan dira.

Zorionak biei!



IRU-NABE ESKABAZIOAK



SAN PEDRO AUZOA
☎ 943-74 17 28
ELGOIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maitte Rementería,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Julian Mujika, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Badena badek eta hi, ez haiz

Makina bat hauts astindu da bazterretan aspaldion. Garapenaren seinale, agian. Lehengo batean, lagun baten ahotan entzun nuenez, “hautsa estratejiko omen da”. Bera ezagututa, eskutrapuari alergia diotenen teoria iruditu zitzaidan, baina badu bestelako zentzurik.

Azken urteotan, kazetariak gizarteko hauts harrotzaile nagusi bihurtu zaizkigu. Egia esan; hori da beraien zereginetako bat. Halere, eta hautsik ikusi nahi ez duten kazetariak dauden bezala, gehiegi ikusten dutenak ere badira. (Garbizalekaria, akaso?) Edo, norberaren etxean ikusi ez eta kanpokoarenarekin asaldatzen direnak.

Bada, horixe bera gertatu zitzaion duela 10 urte ABC egunkari madrildarreko kazetari bati. Etxekoak erakargarri ez nonbait eta kanpokaldera jo behar izan zuen egunero idaztea zegozkion hiru orriak idatziko bazituen. Astindu beharrekoa, berriz, “Ikastola: Terrorismoaren kantera”.

Gai hau ahaztuxe izango zelakoan, eta Gregorio Ordoñezen hilketaren ondorengo giroaz baliatuz, artxiboan gordeta zituen hiru orrialdeak atera eta beroiek birrargitaratzeari egoki iritzi dio. “Azken muturre-raino ETA ikertu” eta “Jarraiko gazteak Ikastolan du bere sorrera” izenburupean, editoriala eta artikulua luzea argitaratu zituen egunkari honek duela bizpahiru aste.

Nire ezjakintasunagatik, agian, baina gauza berri asko jakin ahal izan nuen aipatu egunkariari esker. Hala nola, ikastolaku-

meok goizeroko sarreran Sabino Arana gurtzen genueneko; gure irakasleen eskola orduetako diskurtso politikoaz; gazte-rarekiko ereindako gorrotoa, etab... luze, luze bat. Nire inozentzia garaian nola antzeman hau guztia? Baina, bada orandik berri harrigarriagorik. Ikastolakumeok, graduado eskolarrarekin batera, Jarraiko karneta betetzeko txartela jasotzen omen genuen. Azken honek, etxeko kajoiak astintzera bultzatu nau. Ez dut, halere, inondik inora halakorik topatu.


Hau guztia gutxi balitz, azkenik jakin ahal izan dut hainbat eta hainbat ikastolakume langabezia egotearen arrazoa. Dirudienez, gure maisu/andereñoen irakasteko gaitasuna halamoduzkoa zen! Makina bat urte alperrik emandakoak gara, beraz.

Izango da idazki hau irakurri ondoren harritu xamarrik geratuko denik. Bada, imajina ezazue zer aurpegi gelditu zitzaidan berau irakurtzean. Artikulu honek ez du inondik inora ikastolaren apologia helburutzat. Hainbat eta hainbat kazetari prentsa askatasunaren babespean edozer esateko lizentziaz jabetzearen protesta izan nahi du. Zeren, prentsa askatasunak aipatu zentzugabekieretara bagaramatza, ni zentsuraren aldeko nauzue.

Haseran esandakoaren haritik, kazetari batzuk lan eskerga egiten ari diren bitartean, beste batzuek horrelakoetan topatzen dute beraien gozamina. Ah, beste lagun batek dioenez, “badena badek, ez dena ez dek eta ABCkoak ez dituk”.

Izaskun Elizburu

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Ba al dauka Udalak San Roke auzoan iturririk jartzeko asmorik?

Hirigintza Batzordeko presidentek esan digunez, San Roken iturria ipintzeko eskaria ez da oraingoa eta gogoan daukate. Halere, momentuz ez omen dute inolako erabakirik hartu eta aztertzen ari dira balizko iturri hau non eta nola jarri.



KEXAK

Aste honetako kexa San Antolinen dagoen rotondaren haritik dator: batetik, lorategi guztia bukatua zegoenean "gogoratu" omen zitzaion norbaiti burdinezko eskultura jartzea, ondorioz lorategi guztia izorratu dutelarik. Bestetik, aipatu eskulturak gidarien bisibilitatea mozten omen du horrek dakarren arriskuarekin.



TXALOAK

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Santa Ageda bezperan euren baserriko atea zabaldu eta limosna eman zuten baserriar guztiei eskerrak eman nahi dizkie ohitura zahar hau mantentzen laguntzeagatik. Halaber, San Migeleko elkartekoei eskerrik zintzoenak luzatu nahi dizkio afari eta berakatz zopa prestatu zutelako koroetan ibili zen jendearentzat.

ESKUTITZAK

Topa dezagun gazteentzako alternatiba bat

Joan den egunean, nire alabak, 14 urtekoak, goibel eta aurpegi ximelaz, zera esan zidan: "Aita, nire lagunak tabernetan sartzen hasi dira, eta niri ez zait gustatzen giro hori. Baina zer egin dezaket? Uda partean, hondartza dela edo mendia dela, badaukagu nora joan baina neguan tabernaz aparte, ez dago arratsaldea pasatzeko lekurik".

Zer erantzun ez nekiela geratu nintzen arrazoi biribila zeukala ikusita. Geure gazteria tabernetan dabil, eta horrek eskandalizatu egiten gaitu. Baina ba al dute bestelako alternatibarik? Zer egin dezakegu guk, gurasook? Non daude gazteria taberna zuloetan sartuta ibiltzen delako asteburu oro protestatzen duten guraso horiek?

Nik zera proposatuko nuke: gazte zein guraso, jo dezagun denok batera Udaletxeko ordezkariengana, ea denon artean irtenbiderik topatzen dugun.

Guraso bat

Eskerrik asko

1994 urteko .Parrokiako

Jaiotzaren mobida bukatuta, modu batean edo bestean Gabonetako Jaiotza egiten lagundu digutenei gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu lerro hauen bidez. Halaber, Jaiotza ikustera etorri ziren guztiei eta diruz lagundu zigutenei, eskerrik asko, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango bailitzake urtero urtero gure Jaiotza maitea muntatzea.

Parrokiko Jaiotzaren Batzordea


ZURE ESKUTITZAREN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, eta abar... adierazteko aukera duzue.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak bakarrik agertuko dira.

Eskutitzen luzera ez inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK






Argazki hau 1954. urtean Lerenen ateratakoa da eta **Fernando Uriartek** ekarri digu. Argazkia Inaxio Sagastari, Espainiako 80 metrotako txapelduna izandakoari egin zitzaion omenaldi egunean aterata dago.

Ezkerretik eskumara, hauexek dira bertan agertzen direnak: **Fernando Uriarte, Rodolfo Cuesta,**


Inaxio Sagasta, Juan Ignacio Iguaran (tolosarra bera, eta Espainiako txapelduna euskal barra zeritzona jaurtitzen) eta Inaxio Intxausti, jabalina jaurtiketan Gipuzkoako txapelduna.

Omenaldiko ekitaldien barruan, futbol partidua jokatu omen zen eta atsedenaldiran argazkikoek exhibizio moduko bat egin zuten. Sagastak 80 metrotan korritu zuen, eta gero, barra eta jabalina jaurti zuten beste bi txapeldunek.



-Ihaurerietako jantziak eta behar dituzun apaingarriak ditugu.

P. Muguruza, 8. Tel. 741642



San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49



San Bartolome 18
☎ 74 08 49

1994ko HAUTESKUNDE SINDIKALAK


Langileriaren ahotsa

1994. urteko irailetik 1995eko abendura bitartean hauteskunde sindikalak egiteko epea izango dute lantegi eta enpresek. Herri eta enpresa gehienetan eginda dituzte dagoeneko langileen ordezkariak izango direnak aukeratzeko bozketak edo botazioak. Geratzen diren enpresek urte bukaera arte izango dute ordezkariak hautatzeko aukera. Sindikatu ezberdinek lortutako ordezkariak jarraian emango ditugun datuetan isladatzen da, beti ere behin behinekoak direla kontuan izanda, abendura arte ez baitira azken-azkenak izango. Gure eragingunea eta ondorioz interesgunea Elgoibar denez, herriko datuen eta Deba Beheko datu orokorren berri soilik emango dugu.

Egunkarietan agertu den bezala, datu borroka izugarria egon ohi da sindikatuen artean lehen postua, bigarrena edota hirugarrena nork bere buruari egokitu nahian. Euskal Elkarte Autonomoan gertatu

denaren antzerako zerbait erakusten dute herriko datuek. Lehenik ELA dago 51 ordezkariarekin, atzetik CCOO 43 ordezkariarekin, LAB ondoren 31rekin eta azkenik UGT 13 hautaturekin. Aurreko hauteskundeekin konparatuz,

ELGOIBARKO EMAITZA OROKORRAK



ELGOIBARKO SINDIKA



Nahiz eta abendura arte luzatu, dagoeneko hauteskunde sindikalak bukatu direla esan daiteke. Orokorrean ELAren nagusitasuna nabarmen geratu da, beste hiru sindikatuak nahiko atzetik geratu direlarik (ELAk %40 lortu du eta besteek %15 eta %17 bitartean). Sindikatu abertzaleek (ELAk eta LABek) aurrera egin duten bezala, CCOOek eta UGTk atzera egin

dute. Deba Behean ere ELA nagusi izan da aurreko portzentaiak mantenduz. Gauza berdina CCOO-i dagokionez. UGTk galdutakoa LABek irabazi du. Elgoibarren ELA eta CCOO oso partekatuak aurretik, LAB atzeraxeago eta UGT urruti xamar. Hauteskunde hauetatik bi gauza azpimarratu: hautatutako ordezkarien kopurua asko jeitsi dela plantilen gutxitzeak eta enpresen itxierak medio, eta beste inon ematen ez den lau sindikatuen arteko lehia.



Deba Behean atera ditugun emaitzak onak izan dira, kontuan hartuta guk ez dugula ELAk bezain ondo prestatu jendea. Deba Behean ELA aurretik doa 150 inguru ordezkariarekin. Bailarako bigarren indar sindikala gara, 92 bat ordezkariarekin. Elgoibarren aurreko hauteskundeetan atera genituen ordezkari kopuruaren antzerakoa aterako dugu, 50 inguru. Kontuan hartu behar da zenbait enpresak,

Anayak, CME eta beste batzuk Itziarrera alde egin dutela eta horrek zenbaitan eragina duela.

Elgoibarren mantentzen ari da gure sindikatu, 500 inguru afiliatu ditu. CCOO sindikatu aktiboa izan da beti, orain Sigmarren kasuan ere lanean ari gara langileak enpresarekin geratzeko. Informazioa falta izan da eta hor gabilza S.A.L. edo antzerako zerbait egin nahian. Datoren urte hauek orain artekoak baino hobeak izatea espero dugu Elgoibarren, lana sortzen ari baita.

1990eko hauteskunde sindikalekin hain zuzen, aukeratutako ordezkari sindikalen kopurua jeitsi egin da. Batetik, krisiaren eraginez, enpresa gutxiago dago, eta bestetik, gertzen diren enpresetan plantilak ere murriztu egin dira. Elgoibarren nabaria izan da zentzu honetan jeitsiera. Horregatik sindikatu guztiek 90ean baino ordezkari gutxiago dute, LABek ezik, honek ordezkari bat irabazi baitu.

Ondoko tauletan Elgoibarko datuak ikus daitezke. Ezkerrean, sindikatu bakoitzak Elgoibarren eta Deba Behean izan duen ordezkari-tza eta eskuman, 3 ordezkari-tza gora dituzten enpresetan indar sindikalak nola geratu diren banatuta azaltzen duen taula. Gogoratu ordezkari kopurua honela lortzen dela: 30 langileri ordezkari bana dagokio, 30 eta 50 langile bitartean hiru ordezkari eta 50 langiletik gora enpresa batzordeak edo komiteak eratzen dira.

ZENBAIT ENPRESATAKO EMAITZAK	EA	EA	UGT	UGT
ASI AKIN	1	1	1	0
ALCORTA UNZUETA CIA	3	2	1	3
ALYCO	3	2	1	3
ASOC. IZPI	0	0	3	0
DOIMAK	0	0	0	3
ETXE-TAR	6	0	3	0
ESTARTA ING. Y MAQ.	2	2	1	0
EYEDIS S.A.	2	0	0	1
GEMINIS	4	1	0	0
GRUPO SIGMA	6	8	2	2
KONDIA	0	4	0	0
LAGUN	2	1	2	0
RODISA	0	3	6	0
TRAT. SARASQUETA	0	0	0	3
UDALETXEA	4	2	0	0
IKASTOLA	0	0	3	0

TUEN BALORAZIOAK



LABetik emaitzen balorazio positiboa egiten dugu, 1990. urteko hauteskundeetan izandako emaitzak gaitzitu ditugulako, bai ordezkari kopuruan baita portzentatuetan ere. Gure sindikatuak Deba Behean izan duen

gorakada handiaren testuinguruari lotu behar zaio guzti hau.

Laugarren indar sindikala izatetik, orain Deba Behean bigarren postuan lasai egotera pasatu gara, 7 puntutik gorako igoera izan dugularik. Era berean 90. urtean genituen ordezkarien kopurua erruz gaitzitu duen sindikatu bakarra izan gara.



dugu aurten. Hautagaiak aurkeztu ditugun enpresa guztietan botuak jaso ditugu eta ordezkari gehiago atera. Gure herrian gora egin arren, Deba Behean, berriz, atzerakada garrantzitsua sufritu dugu. Azken hauteskundeetako emaitzekin konparatuz behera egin dugula nabaria da. UGTk jasandako beherakadaren arrazoiak aztertzea konplexua da. Lau urte haue-

tan metalaren inguruan arazoak sortu izan direnean han egon izan da beti UGT. Gure ikuspuntutik, beste sindikatuetan bezain ondo prestatua dagoen jendea dauka UGTk. Ez dugu uste politika zentral ez egoki batek sortarazi duenik jasandako atzerakada. Langileriari begira, PSVren eskandaluak ez digu onik egin baina ez dut uste hori izan denik botuen jeitsiera eragin duena. Ez dugu ahaztu behar gauza guzti horien gaitetik ehun urte baino gehiago duen erakunde bat dagoela eta UGTk sindikalismoaren historian izan duen funtsezko papera.

Zertarako balio dute sindikatuek?

Atzoko, gaurko eta biharko gizarte demokratikoetan berebiziko papera bete izan dute eta beteko dute sindikatuek.

Sindikatuaren eginbeharrak aztertu eta moldatu egiten dira noizean behin langileen beharrei egokitzeko.

Funtsezkoa iruditzen zait hemen gogoratzea sindikatuak ez direla kapritxo sortu. Langileek batzeko erabakia hartu zuten beraien eskubideak defendatzeko. Horregatik komenigarria deritzot gogoraraztea sindikatua ez dela soilik lokal bat gure arazoak konpontzea nahi ditugunerako, bertara afiliatuta gauden langile orok osatzen dugun erakundea, baizik.

Sindikatuaren izateko arrazoia ez da langileariaren bizi-baldintzen hobekuntzan bukatzen, ezin daiteke horrekin bukatu. Harantzago joatea funtsezkoa da. Ez dira bakarrik lana dutenen eskubideak defendatu behar, ez dutenen eskubideak ere bai, era guztietako eskubide demokratikoak sakondu behar dira, enpresen eskubideak barne, bai noski. Akumulazio antisozial eta ez solidarioaren aurrean, politika sozial zuzen baten defentsa egin behar da, hazkunde alternatiboa eta banaketa solidarioa bultzatuz; pribatasunaren aurrean, denokatikoki gestionatutako publikotasuna defendatuz; edozelako zapalkuntzarekin amaituz, sexuala, soziala, nazionala edota ideologikoa izan, ingurugiroa errespetatzen duen bizimodu baten alde borrokatuz; guzti hau helburu bakar batekin: gizakiak guztiz askeak izateko, aberastasuna, kultura, ingurugiroa eta politika gizaki

guztien eskura egongo den Estatu demokratiko eta sozial bat eraikitzeko helburuarekin. Guzti hauekin batera funtzio klasikoak ere eskaintzen dio sindikatuak langile mugimenduari orokorrean eta zehazki afiliatu multzoari, hala nola, informazioa, aholkularitza, konbenioen negoziazioa, defentsa juridiko-laborala, istiluak konpontzeko organuen defentsa eta sorrera, hezkuntza sindikala, lan-osasunaren defentsa, argitalpenak, lan hezkuntza, turismo soziala, aseguruak eta pentsioak, etxebitzak eta abar luze bat.

Hemen esandako guztia sindikatuei badagokie, langileariaren osotasunak sindikatuta egotearen abantailak onartu beharko lituzke. Paper hau ganoraz bete ahal izateko azpiegitura eskuratzen lagundu beharko luke kuota ordainduz, nire ustez ez baita oso etikoa arazo bat daukagunean soilik jartzea sindikatuengana. Sindikatuetan parte hartu behar da, hango kide eginez.

(Erredakzioan itzulia)



OIDIO LOPEZ
CC00eko Euskadiko Batzorde
Ejekutiboko kidea

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

Logopedia Zentroa
Isabel Gil Arrocha
Josune Sainz Larrañaga
● Hizkuntz arazoak
● Hizketa arazoak
● Ahots arazoak
● Irakurtzeko eta idazteko arazoak
Bidebarrieta, 27-B
Tel. 10 84 71 EIBAR

KAFE TEGIA
74 12 65

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

KEMEN Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



MIGUEL PANIZO
58 urte, langabetua

Ez, ez dut sinisten, konkretuki fabrikan gertatu zaigunagatik, Lagun-en. Hitz batean esateko, Lagun-ekoek beren burua saldu egin zuten.



MANUEL PEREZ
50 urte, langabetua

CCOOen nago, kontzientziaz gainera. Hala ere, Lagun-en oso esperientzia txarra izan dut, sindikatuko buru batek konkretuki, ez du maila eman.



ARRATE FAURA
37 urte, hostalaritzako langilea

Bai, ELAn nago. Senarra ELAn zegoen eta lan arazo bat izan nuenean haiengana jo nuen eta arazoa konpondu zidaten, ederki gainera.



AMALIO MARTIN
54 urte, langabetua

Orain ez. Ez dit ezertarako ere balio izan, langabezian nagoelako eta ez dudalako parorik jaso. Orain laguntza familiarra tramitatzen nabil.



FRANCISCO SEGUNDO

60 urte, espezialista

ELAn nago. Sindikatzea erabaki nuen inoiz arazoren bat edukiz gero, laguntza izateko. Sindikatuta egoteak babesa ematen du.



SANTIAGO AGEA
42 urte, langabetua


ELAn nago. Komenigarria da ze, kalean geratu naiz eta ondo etorri zait. Istripuagatik ezintasuna lortzekotan nabil eta eurak ari dira papeleoa-ekin.

**ASESORIA
GOIBAR**

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



■ Gestorek Artetxeren atxiloketa salatu dute

Eugenio Artetxe HBko zinegotzia izandakoaren eta Gestoretako kidearen atxiloketa, “errepresiboa eta eduki politikoa duena” dela adierazi dute Elgoibarko Gestorek. Hauen arabera, “joan den ostiraleko goizeko 7etan Ertzantzaren hiru auto Eugenio Artetxeren etxera joan eta berau Eibarko komisaldegira eramán zuten, ustez pintadak eta kartelak pegatzeagatik”. Gestoren iritziz, Udaltzain baten deklarazioetan oinarrituta dago denuntzia, “hala izan den susmoa dugu denuntzia guztiak Gobernu Batzordetik pasatzen direlako eta oraingoan Gobernu Batzordean ez dute Eugenioren denuntziaren berri izan. Epaileak ere ez du agindu atxilotu dezaten eta Eugenioren ez diote inolako deklaraziorik hartu. Izan ere, Gestoretako abokatuak kasualitatez Elgoibarren zegoen eta atxilotetaren berri izan zuenean komisaldegira joan zen, Eugenio berehala aske utz zezaten eskatzeko”. Epailea oportetan zegoela esan zuten Gestoretako kideek eta epaitegiko idazkariak berehala aske uztea erabaki zuten. Gestorek atxiloketa honen irakurketa politikoa dela adierazi zuten, “HBko kideen aurkako errepresio kanpainaren barruan kokatzen ditugu honelako atxiloketak eta zenbait egunkaririk gertaera honi buruz egindako interpretazioa bera ere bai”.

■ Eskalada ikastaroa

Morkaiko Mendizale Elkarteak gazte eta nagusientzako eskalada ikastaroa antolatu du. Martxoan zehar izango da Olaizaga Kiroldegiko rokodromoan. Parte hartu ahal izateko baldintza bakarra federatuta egotea da ikastaroa hasten denerako. Materialea Morkaikoren kontura izango da. Izena emateko epea martxoaren 3an bukatuko da. Argibide gehiago jasotzeko Morkaikoko 74 02 97 zenbakira deitu.



Arratoiak hiltzeko herriko leku ezberdinetan Udal Brigadak jarri duen hauts urdina da argazkian agertzen dena. Hurrek “pika-pika” deitzen diren horiekin konfunditu ditzakete arratoiak akabatzeko hauts urdinak. Horregatik gurasoei jakinarazi nahi zaie seme-alabei kanpaina honen berri emateko eta intoxikaziorik gertatuko balitz, orain arte ez da sekula gertatu, paketea bertan agertzen dela antidotoa. Udal Brigadak urtean lau bat aldiz jartzen ditu hauts hauek herri osoan eta Alzolan zehar, alkantariletan, erreka bazterretan, sasi artean... Norbaitek arratoiak hiltzeko hauts hauek nahiko balitu, Brigadak Melitongo “Mataderoan” duen lokalean eskura ditzake.



Intsumisoen epaiketak direla eta, ekintza ezberdinak burutzen ari dira egunotan. Adibide modura, Herriko Institutuko gazteek, manifestazioan zeharkatu zuten herria asteazken goizean. Egun horretan bertan Iñigo Astigarraga eta Ander Alkorta intsumisoak epaitu zituzten eta hil honen 28an Abel Irizar eta Roberto De la Arada eseriko dituzte akusatuen aulkian. Hurrengo epaiketa martxoaren 27an izango da eta Jose Manuel Lazarobaster epaituko dute.

634 errepidea itxita egongo da gaez Maltzagaraino

Aldundiko Errepide Saila 634 errepide nazionalean burutzen diharduen lanak direla eta, Maltzagaraino Sigmarainoko errepide zatia itxita dago hilaren 6tik. Errepidea moztuta egongo da hilaren 23ra arte, gaueko 11ak eta goizaldeko 7ak bitartetan. Larunbat eta igandetan berriz, zabalik egongo da aipatu bide zatia. Astegunetan gaez dabiltzan auto gidariek autopista erabili beharko dute alternatiba modura.

HBren alegazioei ezetza

Hobekuntza lanen ildotik, HBk aurkeztutako bost alegazioei kasurik ez die egin Aldundiko Errepide Sailak, alderdi abertzaleak prentsaurrekoan agertu zuenez. HBren alegazioak hauexek ziren: lehenik, lanak Sigman bukatu beharrean Txankakua zubiraino luzatzea. Bigarrenik, Sigmako etxeetara, Olastoko industrialdera, hilerrira eta Goikorrotara sarreran sortzen diren trafiko arazoei irtenbidea ematea. Hirugarrenik, errepidean zehar, bertako zuhaitzak landatzea ingurugiro aberatsago baten alde eta bide batez lurjauziak ez gertatzeko. Laugarrenik, obrek irauten duten



epean Europistas-ek Azitain eta San Antolin bitarteko peajea libre uztea. Eta azkenik, zikloturistak errespetatzeko seinaleak jartzea. Javi Agirre HBko kideak esan zuenez, “desestimazio honek Sudupe jaunaren aldetik interes falta erakusten du, beste proiektu batean Txankakua gurutzebide bat egiteko asmoa baitute”. HBk hobekuntza guzti hauek proiektu bakar batean biltzea eskatzen du. “Izan ere, San Migeleko errekastoa konpontzen dutenean eta behin Sigmarainoko errepidea zabaldutakoan, Txankakuara heltzean bidea estutu

egiten dela ikusiko dugu”. Honez gain, HBren ustez ez da logikoa errepideko petrilak konpontzen ibiltzea duela pare bat hilabete eta orain berriro obrak hastea zati berean. Era berean, alegazioak modu bateratuan aurkezteko eskatu zien HBk gainontzeko alderdiei eta hauek ez zuten inolako asmorik agertu HBren esanetan. Ildo honetatik, Jose Inazio Elgoro-Iribe alkateari partiduaren interesak herriaren interesen gainetik jartzea egotzen diote, “juntero izanik ez baitu ezertxo ere egin herrian hobekuntzak burutzearen alde”.



San Antolineko rotondaren erdi-erdian eskultura bat jarri dute aste honetan bertan, Hirigintza Sailak aurrez iragarri zuen bezala. Jesus Rodriguez Jauregi eskultoreak egindako “Bide gurutzea” izeneko eskulturak 9 metroko garaiera eta 7ko zabalera dauka. Eskultura *Coorten* izeneko burdinezkoa da, uhertu eta gorri kolorea hartzen duen burdina. Egileak “ingurugiroarekin oreka bilatu” nahi izan du. Oinarrian laukia eta estua da, bi “T” irudikatzen dira, aspaldiko bide zaharrak markatzeko erabiltzen ziren seinaleen tipokoak.

■ Elkarrik mahai informatiboak jarriko ditu

Elgoibarko bakearen aldeko Elkarri tailerrak informazio mahaiak jarriko ditu Plaza Handian hil honen 11n eta 18an, eguerdiko 12etatik 13,30ak arte. Bertan “Zuk zer diozu” izeneko galdeketaren erantzunak jasoko dituzte, eta egin ez duenak bertan jaso eta betetzeko aukera izango du.

■ Datorren astean agertuko da Nathalia El Tranpolin-en

Tele 5 ko programazio arduradunek “El Tranpolin” programaren emisioa egunez aldatzea erabaki dute. Eguna eta ordua ziur jakiterik ez dagoen arren, Nathaliak berak konfirmatu digunez, datorren astean emango dute, ostegunetan edota larunbatean. Hori Tele 5 kateko arduradunen esku dago.

Andres Alberdi:

"Eredu bat sortu nahi dugu enpresetan euskara ere erabili dadin"

Getariarra da, 44 urte ditu. Filosofian lizentziatu eta 23 urte zituela Elgoibarko ikastolara etorri zen irakasle bezala. Zazpi urte egin zituen bertan, azkenengo lauak zuzendari modura. Ondoren, Elgoibarko Institutura joan zen, katedra atera eta euskara alorrean dihardu gaur

egun irakasle bezala. Herriko Institutuak antolatzen dituen ikastaroen artean aurten bada nobedade bat, enpresa mundua euskaratu asmoz, harreman komertzialak euskaraz moldatzeko ikastaroa, alegia. Andres Alberdi izango da ikastaroaren arduraduna.

- Zein ikastaro mota da?

- Lehenengo intentoa da, ez dakigu zenbat jende apuntatuko den, ze asmorekin apuntatuko den, jende horren euskara maila zenbaterainokoa izango dan... Dena ikuskizun dago oraindikan.

- Zer dela eta ikastaro hau?

- Garai batean euskara ez zen irakasten inun. Gero, eskoletan, ikastoletan euskara sartu zan. Hurrengo apustua hainbat irakasle institutuan sartu eta hau euskalduntzea izan zan. Eskola gorpuztu da eta euskal itxura hartu du eta hurrengo fasea da hau gizarteratu egin behar dugula. Eskolako gudua irabazi dugu, ez degu irabazi oraindikan kaleko gudua. Eskolatik jende euskalduna ateratzen ari gara eta gero jende horrek ez dauka tokirik kalean, bueno ba, toki horiek egin behar dira. Gurea akuilakada txiki bat izango da, alor guztiak ikutzen hasi behar gara.

- Eta ez al da motibazio falta izango?

- Nik uste dut baietz, gehienbat horixe dela baina, beharbada, baita ere izan daiteke soportea falta bat, jakintzarik eza... Gure asmoa litzateke halako eredu bat sortzea: eskuti-



"Gurea akuilakada txiki bat izango da. Alor guztiak ikutzen hasi behar gara".

tzak nola egin daitezkeen, bilera aktak, iragarkiak euskaraz era honetara egin daitezke...

- Lana bikoitza da, beraz.

- Bai, hala da. Bata da jendea animatu, motibatu euskara hitzegin dezan, erabil dezan eta bestetikan halako soportea teoriko eta praktikoa bat ere eman.

- Nori dago zuzendua ikastaroa?

- Lanean dagoen jendearekin batez ere. Dena den, langabezia dagoen jendearentzat ere irekia izango da.

- Euskaraz alfabetatua ez dagoen jendea apuntatzen bada?

- Ezin ezkonduak toki askotatik etor daitezke: jende gehiegi, edo jende gutxiegi; jendea alfabetatua edo alfabetatu gabea. Horren arabera montatuko litzateke era bateko edo besteko programa. Halere, funtzioa ez da euskarako klasea montatzea, funtzioa da euskara tailerretara zabal-tzea, jendea motibatu behar da eta horri soportea batzuk emango dizkiogu, hori da helburua.

- Ikastaro honek izango al du gero erabilpen praktikorik?

- Ez dakigu. Gizarte hau gargantua handi bat da eta gargantua hori gaztela-

nia da eta horrek dena jaten du. Euskarak profesionalki oso jende gutxiri ematen dio jaten. Giro bat sortuko balitz eta gutxienez enpresan bertan hasten baldin badira gauzak mugitzen, pauso bat eman gogor genuke. Esperientziak badaude, tailer batzuk egiten dute euskaraz baina horiek bakanak dira, isolatuak. Isolatu horiek elkarrekin eta ohitura batzuk sortzea izango litzateke gure asmoa.

- Lehen pausu hori bultzatu behar da, beraz.

- Bai. Enpresa kontserbadorea da eta kanpotik ez bada sasatzen, indar guztiak ez badira mugitzen enpresak ez du pausu bat emango euskararen alde.

- Zerekin geratuko zinatekete gustura?

- Gutxienez enpresa bateko bi elementu ikastaro hau dela eta euskaraz hasten badira euren harremanak egiten, nahikoa izango da. Elgoibarren bentaja bat dugu, enpresa guztiak txikiak direla, eta denok elkar ezagutzen dugula. Azken finean, geure buruetan sentitzen al gure euskaldun? Hala bada, eman dezagun beste pausu bat. Euskerarik txarrena zein da? Egiten ez dena. Ikastaro hau interesa duenak egingo du.

Txiki **BARREN**

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 11. GEHIGARRIA




Urtebete darama martxan **ARGITXO** irratia. Ikastolan kokatzen da honako irrati hau eta mintzamina landu asmoz jaio zen. Gaur egun, irratiko 105,7 zenbakian entzun daiteke, ostiralean hasi eta igandera bitartean, beti ere ordutegi konkretu batean, eguerdi partean eta iluntze aldera. Argazkian ikus daitekeen mutil taldea da gaur egun irratiaz arduratzen dena, funtzionamendua ezagutzen dute eta gusturen ibiltzen direnak beraiek dira. Halere, gelaz gela, beste umek ere egiten dituzte euren lantxoak, irratiz grabatu eta gero emititzeko, denen ahotsak izan daitezen **ARGITXO** irratiko protagonista.

IRRI MIRRIKA

Etxera iritsi eta, notak atzean
ezkutaturik dituela, Jaimitok
boligrafoa eskaintzen dio aitari,
esanez:

- Kutxi-kutxi, oso trebea zara, aita;
ezetz idatzi zeure izena begiak itxita?



Guraso eta seme-alaben arteko harremanak

Gurasoen eta seme-alaben harremanari buruz hitz egiten dugunean, oso zaila da babes-autoritate erlazioa eta adiskidetasunaren erlazioen arteko banaketa ikustea. Gurasoei, babestea, laguntzea eta ahal duten guztia ematea gustatzen zaie. Gainera, haien artean adiskidetasunaren harremanak egotea nahi dute: edozein gairi buruz hitzegitea, haien artean gauzak kontatzea, lagunartean irtetea, gauza guztietaz elkarrekin gozatzea eta abar.

Horrela esanda oso polita geratzen da baina errealitatean ematen duena baino zailagoa da. Honekin ez dut esan nahi horrela gertatzen ez denik, noski baietz!, baina bestalde, oso zaila da autoritatea lortzea adiskidetasunarekin.

Umeek gurasoekiko maitasuna eta errespetua dute. Umeek badakite gurasoek maite dituztela baina, era berean, badakite gurasoek agintzen dutela bai eta zerbait gertatuz gero neurriak hartuko dituztela ere. Horre-

gatik, askotan umeez etxean ez dituzte kontatzen kalean hitzegiten dituzten gaiak.

Zer egin behar da hau gertatzen denean? Egia esan, ez da erraza erantzun bat ematea. Gurasoek ezin dute beraien papera galdu edozein gertakizunetan. Umeak, gazteak zerbait (ondo edo gaizki) egiten duenean, berarekin hitzeging behar da eta arrazoi guztiak eman behar dizkiogu berak ulertu eta jakin dezan zerbait noiz dagoen gaizki eta noiz ondo. Pausu hau eman behar dugu gure harremanak hoberantz joan daitezen. Batzuetan ez dizkiegu arrazoizko erantzunak ematen. Esaten diegun bakarra zera izaten da: "Horrela da eta kitto!", edo, "gaizki dago nik esaten dudalako".

Zenbat eta komunikazio gehiago egon, hainbat eta harremanak estuagoak izango dira. Lehenengo pausua gurasoek eman behar dute. Gero konturatuko dira umea gusturago egongo dela.



MAITE ARANGUENA ARISTI
PEDAGOGOIA

Ze iritzi daukazu San Valentín egunari buruz?



Batzuentzat polita da, nobixua daukatenentzat behintzat zeren eta errekaluak hartzen baitituzte. Baina aurten krinia dago.

LEIRE AGIRREBENA. 13 urte



Egun oso polita da maite dugunari gure maitasuna adierazteko.

IOSU AIZPURU. 9 urte.



Oso polita da. Maiteminduta daudenak erropa zorria eramaten dute. Baita nik ere baina besteek ez ikusteko, kuleroetan eramaten dit.

BEATRIZ FIGUEREDO. 11 urte



Etxepyl Mctvpg
12 wtvg

Galde debalde

- 1 - Zein lehiaketatan hartuko zenuke parte?
- 2 - Mortadelo ala Filemon?
- 3 - Gehien gustatzen zaizun arropa? Kolorea?
- 4 - Karameloak txupatu egiten dituzu ala koska egin?
- 5 - TBko zein programa ez dizute ikusten uzten?
- 6 - SuperBat-eko bazkide al zara?
- 7 - Koloniarik erabiltzen al duzu?
- 8 - Ihauterietan mozorrotuko al zara?

1. Ligan, futbolista izan nahi nuke, Kodro bezela.
2. Mortadelo, zoroagoa dalako eta disfrazatu itxen dalako.
3. Kirol jantziak eta batez ere ilunak.
4. Koska, bestela asko irauten dute eta aspertu egiten naiz.
5. Anai txikiarekin nagoenean ez didate Son Goku ikusten uzten.
6. Ez, oraindik ez dot txartela erosi baina badakat asmoa.
7. Bai, *Panama Jack*.
8. Bai, bakeroz, lagunekin.



Dgukt e g Lqrg
8 wtvg

1. Patinaje Artistikoko txapelketak asko gustatzen zaizkit.
2. Mortadelo tximeletaz jautzen da eta.
3. Soineko larrosa.
4. Txupatu horrela gehiago irauten du eta.
5. "El juego de la Oca", oso berandu da eta.
6. Bai. Nere urtebetetze egunean pizza bat oparitu zidaten.
7. Batzutan bai, perfumatzeke. Nenuco erabiltzen dut.
8. Bai, eskolan egiten digute. Ni izar batez mozorrotuko naiz.

Zer da... *hazkura* ?

AMAIA GORROTXATEGI 8 wtvg



"Kili-kili itxen dian gauza bat. Bueno, batzuetan hotzikarak ere ematen dizkit".

UNAI SEGUNDO 10 wtvg



"Eltxoak pikatzen dizunean hazkurea izaten duzu. Grano gorri txiki bat ateratzen zaizu eta hazkura bat ematen du!".

LEIRE ALVAREZ 8 wtvg



"Gorputzean sentitzen den gauza bat. Hatzaparrekin gora eta behera eginez kentzen dena".

XABIER FLORZA 6 wtvg



"Dermatitisa daukatenian azala igurtzen dut eta lasaitu egiten naiz".

ENEKO LOIOLA 10 wtvg



"Gustatzen ez zaidan bitxo zikin bat da. Eskerrak Julen Guerrerok ez dituen".

MAIDER ONEDERRA 6 wtvg



"Granuak daukatenian amorrua amaten didate besuan eta trankiltzeko hatz egiten det".

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



INAKI DIEZ
14 urte

Zarautzeko hondartza ikusten dut, olatuz betea eta bertan ni neu, surfa egiten. Ez, libururik ez tarearik ez eta eskolarik ere. Horrelako bat izatea ondo egongo litzateke baina ezinezkoa da.

LUIS MARI ORZA
8 urte


Gustatuko jatan mutil oso altua ikustia, saskibaloian jolasteko. Baina nere logelako ohea ikusten dot. Ni ez nitzan beste aldera pasatuko, bada ez bada, ze igual martzianoak edo bizi dira bertan.



3. Asmakizunak:

- Irteten zure ahotik izan nintzen lehena, beste guztien aurretik zerrendan nago aurrena. Zer da?.....
- Balio dute jateko eta orri hau pasatzeko, asmatzen baduzu baita txalo jotzeko. Zer da?.....
- Emakume triste eta nekatua eguzkiari ihesi dabil, goizero goizero eguna jaiotzean bera hil. Zer da?.....

4. Zenbat karratu kendu dira etxea marraztu ahal izateko?



Erantzunak: 1- Joseba Etxeberria. 2- Ispilu baten aurrean zaudе. Zer ikusten duzue? 3- A hizkia, eskuak, ilargia. 4- 52.

Gutxi erabili arren, bikoiztu egin da gazteen artean euskararen erabilera

1994ko abenduaren 16, 17, 18, 27, 29 eta 30ean Udal Euskara Batzordeak kale neurketa bat egin zuen Elgoibarren dagoen euskararen erabilpena neurtu asmoz. Azterketa honen bidez, mintzamen mailan jendeak zein hizkuntzatan hitzegiten duen jaso da eta horretarako 8.924 elgoibartarren hizkuntza jokoera neurtu da. Hona hemen datu horien nondik norakoak.




■ ■ Haurrak eta zaharrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Elgoibarren 11.359 bizilagun daude gaur egun. Esan bezala, 8.924 pertsonen artean egin da azterketa, hau da, %78,5. Emaitzen arabera, biztanle go horren %31,8ak euskara erabiltzen du. Adinaren araberrako sailkapena egiten badugu, euskara gehien erabiltzen dutenak zaharrak eta haurrak direla ikus dezakegu, hala nola, %41,5ak zaharren artean eta %47,3ak haurren artean. Datu honek adierazten du irakaskuntza arloan hartutako neurriek izan dutela eraginik umeen artean, beraien hizkuntza euskara baita. Gazteei dagokienean, %30ak hitzegiten du euskaraz.

Giro ezberdinen araberrako neurketa ere egin zen. Gehien ikas-tetxeetako irteeran erabiltzen da euskara, %38,6, eta gutxien gazte

giroan %26,9 eta txikiteoan %26,4. Neurketa honek azaltzen duen daturik kezka-garriena gazteen artean horren euskara gutxi erabiltzea omen da, izan ere ezagupena baduten arren, motibazio falta erakusten baitu honek.

Halere, bada datu baikorrik. Izan ere, 1993ko datuak hartuz gero, gazteen artean nahiz eta gutxi erabili igo egin baita hauen arteko euskararen erabilera: %15etik %30era, hain justu, bikoiztu egin da, beraz. Giro ezberdinetan ematen den erabilera ere igo egin da: erosketa giroan %27,1etik %36,8ra eta familia giroan %17,7tik %31ra.



Santa Klarako alboetako erretabloak (II)

- Diseinua Frantzisko Ibero azpeitiar arkitektoarena izan zen. Egileak, berriz, Frantzisko Jabier Urristi eta Bautista Eizagirre.
- Dirua Mexikotik bidali zuten. Mendaroko Pedro Bautista Retanak 1744 urtean hil zenean utzi zuen heredentziaren zati bat.
- Obraren kontratuan honako baldintza hau zehazten da: bi urteren buruan kapitala iritsiko ez balitz Amerikatik, maisu eraikitzaileek ezingo zioten eskatu komunitateari ez dirurik, ez eta gairik ere.
- Erretabloko kaperak egin zituzten bi ofizial hargini 12 erreal eta 17 marabedi eman zitzairen. Bi aldaretako markoak eta kornukopia eta pulpituak bolak 34 errealeko kostua izan zuten. Peritoak 79 erreal jaso zituen erretabloak aztertzeagatik eta bi erretabloengatik 6.600 erreal ordaindu ziren. Maisu urreztatzaileari 5.170 erreal eman zitzaizkion.
- Alboetako erretabloak eliza ohiaren hormen kontra, karpanelerako arkuen bidez eginiko nitxoetan aurkitzen ziren.
- Nitxoak kararrizko harlanduz eraikitako arku kanpanelak ziren. Arkuak bi pilastren artean eratutak zeuden eta haben oinak eta inpostak moldurez dekoratuak.
- Ezker aldean, ebanjelioko aldean, sakristiako atearren ondoan, Kristo gurutzatuaren erretabloa zegoen. Eskubi edo epistolako aldean Andra Maria Atsekabetuarena.
- Bi erretabloen konposizioa hornazina haundi baten, pilastrez enmarkaturik, bi maila txiki eta finen gainean

- oinarrizten da. Alboetako kolomatxoak talamendu zati bat dute gainean eta gorantza garatzen dira, nitxoan inpostetaraino.
- Andre Mariaren erretabloko hornazainak erdi puntuko arku forma dute, kolomatxoetan eutsita.
- Kristoren erretabloaren hornazaina, berriz, orijinala eta kurioso da. Gurutz forma du, trazu eten eta mugituez egina hauek zati zuzen eta kurbaturak osatuz.
- Kristo gurutzean erdian zegoen eta atzean, gaiari zentzu erreal bat emanaz, paisaia lainotsu eta iluna agertzen zuen koadro bat ageri zen.
- Hornazina bien klabeetan zervaren adierazpen sinbolikoak zeuden.
- Santa Klara komentu zaharreko eliza botzatzen ari zirela, Gipuzkoako Kutxak erosi omen zituen erretabloak. Gaur egun, bata Azpeitiko Enparan Kultur Etxean dago, bestea, Donostiako Antiguoko parrokian.

PELLO ARRIETA



Diego Escudero

(1925-1985)



- Donostian jaio zen 1925. urtean.
- 1942an Elgoibarrera etorri zen bizi izatera. Aita korrikalaria zen eta bere anaia ere bai. Joaquin Escudero korrikalaria ezaguna zen bere anaia, Mugerza krosa zenbait alditan irabazi zuena.
- Elgoibartar batekin ezkondua, Pili Zabalarekin, bi seme eta alaba bat izan zituen.
- Sigman jardun zuen lanean. Geroago, zenbait lankiderekin batera, lantegi mekanikoa jarri zuen eta beranduago, ACME enpresarekin bat egin zuten.
- Futbol jokalaria zen C.D. Elgoibar taldean. Zaletasunen artean, oso gogoko zuen arrauna, erregatak, alegia.
- 1985. urteko martxoaren 31n hil zen.



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● 📠 ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

GARAY



HARATEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanada Baserriko ogia

B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

MOTZAK

Elgoibarko I. Bolo Txapelketaren finalak

Larunbat honetan, hilak 11, arratsaldeko 7,30etatik aurrera Elgoibarko I. Bolo Txapelketako laugarren eta azken tiraldia jokatu da San Pedroko bolatokian. Finala interesgarria izatea espero da, banakako zein taldekako mailan oso parekatuak baitaude lehen postuetan. Sari banaketa 9ak aldera hasiko da. Irabazleek, taldekako zein banakako atalean, txapela eta garaikurra jasoko dute eta bigarren eta hirugarrenarentzat ere garaikurra egongo da. Ostean, lagun arteko afaria izango dute.

Zazpi domina Ibaiko judokentzat

Ibai gimnasioko judoket zazpi domina zintzilikatu zituzten lepotik joan den larunbatean Zumaian izandako klubaren arteko Gipuzkoa mailako txapelketan. Elgoibartarrek Deba Beheko gazteen aurka ezezik, Donostialdeko eta Goierriko judoken aurka ere borrokatu behar izan zuten. Zazpi domina lortu zituzten guztira. Gorka Garatek eta Xabi Gonzalezek urrezkoa, zilarrezkoa Mikel Muñozek eta Andoitz Agirregomezkortak, eta Zipri Migalesek eta Javi Quintanok brontzezkoa. Datorren astebukaeran Oreretan izango den Gipuzkoako Txapelketari begira momentu onean daudela erakutsi dute Ibai gimnasioko judoka elgoibartarrek.



Juan Mari Iriondo:

"Uste baino lasterketa politagoa atera zen"

■ Faboritoez irabazi al zuten?

- Emakumezkoetan dudarik gabe. 38 pertsonak Ribeiroren alde "porra" bat egin genuen eta 36k azertatu genuen. Lahlafiren alde %80k azertatu genuen. Sevillan oso ondo ikusi zitzaion gutxi entrenatu arren.

■ **Figura handiak falta ziren agian.** - Guerrak eta Castrok Europako Klubaren arteko txapelketa korritu behar dute astebukaeran eta klubek debekatu egiten diete astebe-te lehenago korritzea. Fiz ere berdin. Puntako keniarrek esaterako, 2 milioitik gora eskatzen dute, eta 10 milioiko aurrekontuan ezinezkoa da. Ska marrokiarra, Sigei munduko txapelduna, Gebrasilase etiopiarra... denak milioi t'erditik gora.

■ **Data aldaketa kalterako izan da, ez?** - Dudarik gabe. Datorren urtean ere oso zaila izango da ohizko datan izatea, berez urtarrilaren 14an tokatzen da.

■ **Lasterketa nola ikusi zenuten?** - Gauza asko kontra izan arren, uste baino lasterketa politagoa izan zen. Lahlafi munduko lehen hamarren artean dago, El Khattabi ere lehen hamabosten artean. Honek ramadanekeo baraua egiten duenez, ez zuen gosaldia eta hala ere, 3. izan zen. Gero, bi jatordu egin zituen arratsaldeko 7etan, eta 10etan. Lahlafi txapelduna oso pozik geratu zen, ETBn adierazi bezala. Txapela ez zuen gaueko 12ak arte kendu. Baina agindu, mana-



ger-ek agintzen dute.

■ **Junior lasterketan apenas egon zen korrikalaririk.** - Nesketan, batez ere. Hamabik izena eman eta hiru soilik etorri ziren. Federazioaren aginduz antolatzen dugu baina 96rako ez daukagu asmorik, memorialari izen txarra ematen dio. Mutilen lasterketan Madrileko klub batek huts egin zigun txapelketa autonomikoak zirela eta, eta Espainiako onenek ere autonomikoak korritu behar zituzten.

■ Herritarrik bat bera ere ez.

- Dorsalekin okerren bat gertatu zen eta elgoibartar baten izena iragarri zuten. Maiztegi eta Revuelta ere, ez dabilta oso ondo. Jendea falta da.

■ **Ikusle gutxi.** - Defizitrik ez, baina ez dakigu zergatik ibili denjende gutxiago. Itxuraz, eguraldiak ez du gehiegi lagundu.

■ **Arraultzak jarri zenizkion Santa Klarari?** - Ezta burutik pasa ere. Antolakun-tzakook asko esker-

tzen dugu eguraldi ona. Baina esan bezala, ez zen jende gehiago animatu horregatik.

- Adina: 35.
- Krosa ala pista? Biak, beti ere aire librean.
- Korrikalaria izatea gustatuko litzazuke? Inoiz ez zait burutik pasatu.
- Zure kirolak? Atletismoa, futbola eta saskibaloia.


**O I H A L A
MERZERIA**
*Ihanterietako
jantziak*
Errosario 8. Tel: 74 35 95

AULIA
SAGARDOTEGIA
Legorreta ☎ 80 60 66

**Baserriko
haragietan
berezia**

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Elgoibartarrik gabeko krosa

Elgoibartarrik gabeko krosa izan zen joan den igandeko Mugerza Memoriala-Zoco Patxaran Sariaren 52. edizioa. Bozgorai-luetatik 37. dorsalarekin Antonio Fernandez elgoibartarrak korrituko zuela iragarri arren, oker eman zuten izena. Antolakuntza txukuna izan zen eta pista ere egoera ezin hobean zegoen, eguzkiaren epelak lagunduta.

Oraindik ez dakienarentzat hona hemen lasterketak irabazi zituztenen izenak: Junior nesketan Maria Montanet eta mutiletan Oscar Choren. Senior emakumezkoetan Fernanda Ribeiro lehena (Port.), Rocio Rios bigarrena (Esp.) eta Angelina Kana-hirugarrena (Ken.). Eta gizonez-



koetan irabazlea Brahim Lahlafi Khattabi (Maroko). Lehen euskaldu- (Maroko) izan zen, bigarrena James na Kamel Ziani oriotarra izan zen. Kariuki (Ken.) eta hirugarrena El

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



Patxi Arriola Espainiako Txapeldunari plaka eta zilarrezko lingotea eman zioten La Unioneke kideek joan den ostiralean egin zioten omenaldian. Horrez gain, Patxi eta Daloren erretratua jarri zuten elkartean. Ehiztari mordoia batu ziren La Union elkartean izandako afariaren bueltan, tartean Euskal Federazioko eta Gipuzkoako Federazioetako presidentek, ADECAP aldizkari espezializatuko presidentea, eta Udaletxeko ordezkari modura Juan Mari Eguren alkateordea. Ehiztari giroan burutu zen afarian 65 lagun izan ziren, asko kanpotarrak.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 11

- 12,00: Elgoibar - Anaitasuna (Kadeteak)
- 14,30: Urki - S.D. Eibar (2. errejionala)
- 17,00: Haundi - Touring

Igandea 12

- 10,00: S.D. Eibar - La Salle (Ohorezko kadeteak)
- 12,00: Eibartarrak - San Juan (Neskak)
- 15,15: Elgoibar - Intxaurren (Neskak)
- 17,00: Elgoibar - Eibartarrak (2. errejionala)

ESKUBALOIA Kiroldegian Igandea 12

- 12,00: Elgoibar - Beasain (Senior neskak)

FUTBITOA Urasandin Igandea 12

- | | |
|----------------------------------|----------------------------|
| 10,00: Mimox - Pedrusko | U. de Chile - Karkis |
| 11,00: Fotero - Lucky Luke | Hunde Verboten - G. Pana |
| 12,00: Resto del Mundo - Tropiko | Rebel Urbi - Berrogei Duro |

EMAITZAK

FUTBOLA

- Urola 2 - Haundi 1
- Beti Sutan 2 - Elgoibar 3 (2. errejionala)
- Zumaiako 0 - Elgoibar 2 (Jubenilak)
- Ostadar 0 - Elgoibar 3 (Neskak)
- Aloñamendi 0 - Elgoibar 2 (Kadeteak)
- Elgoibar 4 - Almen 0 (Infatilak)

ESKUBALOIA

- Hernani 10 - Pagoaga Elgoibar 16 (Kadete neskak)
- Elgoibar 31 - Ordizia 11 (Kadete mutilak)
- Urnieta 23 - Elgoibar 27 (Jubenil mutilak)
- Bidebieta 16 - Elgoibar 13 (Senior neskak)

MASER, S.A.:

Serbosistemetan eta domotikan arituko den enpresa

Duela ia 11 urte bi ingeniari elektroniko, Jesus Mari Iriondo eta Eugenio Unamunzaga, arlo elektrikoan lanean hasi ziren erreminta makinaren sektoreari loturiko enpresa auxiliar modura. Oso gazte ziren enpresa sortu zutenean baina gaztetasuna ez da oztopo izan enpresa sendo hazi eta gaurreguneko fakturazio kopuru eta langile bolumena lortzeko.

Gaurregun erreminta makinaren sektorearen barruan, arlo elektrikoaren eta informatikoaren ingeniaritza lana egiteaz gain, erreminta makinaren sektorearentzako makinak fabrikatzen duten enpresa horientzako produktuak ere egiten dituzte. Bertan egindako makinetan instalatzeko moduko produktuak fabrikatzeko asmoz sortu zuten. Urteen poderioz produktua definituz eta sendotuz joan da eta gaur egun Renault, Ford edota Nissan bezalako etxeetan erabat erroturik dagoen enpresa da. Elektronikan esaterako, Renault etxearen hornitzaile diren enpresa frantsesei aurrea hartu die Maser-ek, beraiek egindako produktuak homologatzea lortu dutelarik.


Hirutan banatua dago Maser. Automatika sailean proiektu elektrikoak egiten dute, CAD elektrikoaren arloko sistemak esaterako. Informatika industrialaren sailean, informatika aplikatzen dute industriaren munduan, adibidez, prozesuen gestioen monitorizaziorako



■ ■ Etxebizitza intelijenteen ataleko abangoardiako enpresa bihurtuko da Maser.

SCADA sistemak aplikatuz. Bertan garatutako software hau atzerritarrek erosten duten lehena da. Hirugarren saila elektronika industrialarena da. Automatika eta informatika lantzen

eman ere bai. Honez gain, Toshiba etxeko automaten banaketa egiten dute Estatu osorako.



ENPRESAREN FITXA

- ✗ IZENA: MASER, S.A.
- ✗ SORRERA URTEA: 1984.
- ✗ SORTZAILEAK: Jesus Mari Iriondo eta Eugenio Unamunzaga.
- ✗ GERENTEA-HARREMANETARAKO PERTSONA: J. M. Iriondo.
- ✗ FABRIKATZEN DUTEN PRODUKTUA: Informatika eta elektronika industrialerako ekipoa.
- ✗ LANGILE KOPURUA: 20.
- ✗ URTEKO FAKTURAZIOA: 200 milioi.
- ✗ ESPORTAZIOAK %tan: % 8.
- ✗ HELBIDEA: Ibaizarte industrialdea, 3.
- ✗ TELEFONOA: 74 26 69/ 74 44 38
- ✗ FAXA: 74 30 77

dituzte eta salmenta osteko zerbitzua



AZKUE

Santa Ageda bezperan koplak kantatzeko ohitura berriitu zen urtero bezala. Korukideak koplak abestu eta herritarren borondate onari dei eginez, eskean aritu ziren *Caritas* elkarteari emango zaion dirua bilduz. Errosario kalean Salbea abestu ondoren *Baltasar* elkartearen bildu ziren ohizko baba-janaren inguruan. Argazkian ikus daitekeenez, omenaldiak ere izan ziren. Koplari izan diren Rafael Areitioaurtena, Patxi Iriondo, Jose Kruzelegi eta Felix Juaristi omendu zituzten, plakak eskuetan dituztela; ezker-eskuman, Kepa Urain gaurrengungo koplaria eta Ramon Uriguen.

91 baserri koplatu zituzten **Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa Ageda koruek**. Goizean, hamazazpi laguneko taldea aritu zen Urruzuno eta San Roke auzoetako baserrietan. Arratsaldean, berriz, hamabi laguneko San Pedro auzoko 26 baserri pasatu zuten koplak kantatuz eta dirua bilduz. San Migel auzoan bildotsa afaldu ostean, hamar laguneko bi taldetan banatu ziren: talde batek San Lorentzo auzoko 23 baserri bisitatu zituen, besteak San Migeleko 25ekin beste horrenbeste egiten zuen bitartean. Antolatzaileek esan diguteenez, eguraldia lagun zutela primerako eguna pasa zuten eta eskertzekoa izan omen zen baserritarregadik jaso zuten harrera eta estimazioa.



I. LARRAÑAGA



A. GOROSTIZA

Ikastolako ikasleek ere, Santa Ageda bezperan koplari atera ziren. Bozgorailu handi batekin koplariaren ahotsa ganoraz entzuteko, eta tobera batean kolpeak emanaz zeharkatu zituzten herriko kaleak. Tobera XVII. mendean galdu zen aintzina-ko euskal instrumentua da, txalaparta baino zaharragoa. Argazkian lehen planuan Ikastolako haurrak agertzen dira tobera jotzen. Altxairuzko palanka bat da, bi metro inguru luze ditu, bi pertsonak jotzen dute burdinezko ziri baten bidez, batek erritmoa markatzen duelarik eta besteak errepika eginez.



Otsailaren 2an hil zen **ISIDRA ARRIZABALAGA GABILONDO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Nola bizi dituzu *maitasun* kontuak?

Otsailaren 14a San Valentin eguna da, maiteminduen eguna. Data hori aitzakitzat hartuz, Elgoibarko gazte batzurekin izan gara beraien egungo lige asuntuen berri izan asmoz. Garai bateko erromantiko hutsik ape-

- 1 - Maiteminduta al zaude?
- 2 - Erlazio luzeak ala gau bateko rolloak?
- 3 - Ligatzeko taktikarik?
- 4 - Non ligatzen duzue? Noiz?
- 5 - Nork ematen du lehenengo pausua?
- 6 - Nolako neskak/mutilak gustatzen zaizkizu?
- 7 - Erromantikoa al zara?

nas geratzen dela dirudi, horren aurrean, epe luzeko erlazioak baino, gaztetan nahiago izaten dute harreman motz asko izatea. Lehenengo nobioarekin ezkontze hura aspaldiko kontua baino ez da gaur egun, antza.



XABIER FLORES (15 urte)

- 1 - Ez. Neskak gustatu izan zaizkit baina maiteminduta egon naizenik ez dut uste.
- 2 - Biak. Gustuko neska tokatuz gero parean beharbada erlazio luze bat hasiko nuke.
- 3 - Berezirik ez. Berba egitea.
- 4 - Nik kalean eta egunero. Jaietan ez, juergarako egunak dira, lagunekin ondo pasatzeko.
- 5 - Nere kasuan lagunek esaten badidate neskaren bat nere atzetik dabilela, nik ematen dut.
- 6 - Batez ere jatorrak izatea eta guapak badira, hobeto.
- 7 - Ez. Umetan San Valentin egunean eskutitzak idazten nituen, orain ez.

ANA LEON (16 urte)

- 1 - Bateron bat gustatzen jata baina ez dot uste maitatsuna danik.
- 2 - Oin dakaten edadiakin nahixao dot tanteatzia eta gerora hastia erlazio luze bat.
- 3 - Bueno... ez dakit, dantzan eta berbetan.
- 4 - Batez ere asteburuetan eta jaixetan, tabernetan animatzen zera gehixen, dantzan eta berbetan zaudenian...
- 5 - Bai neskak bai eta mutilak ere, segun eta zein dan lanatuagoa.



Baina seguru eduki arte ez gera atrebitzen.

- 6 - Irekiak, erlazio batean hitzegin behar da. Fisikoki? Ez dakat preferentziarik bai rubixuak bai eta morenuak ere.
- 7 - Piskat baina ez gehiegi. Ez naiz gauza polit asko esaten ditzuzten horietakoa.

MARIA PILAR AGEA (19 urte)

- 1 - Egon izan naiz. Oroitzapen polita daukat, dena ikusten duzu ondo eta zorionsu sentitzen zara.
- 2 - Gaztetan gau bateko ligeak ondo daude baina mementu konkretu batean bestelako erlazio serioagoak nahi izaten dituzu.
- 3 - Ni neu naizen bezala agertzea besterik ez.
- 4 - Edozein tokitan ligatu daiteke bai kalean, bai tabernan bai eta diskotekatan ere.
- 5 - Biek, lehenengo lanatzen denak ematen du pausu hori, ausarta izan behar da.
- 6 - Pertsona baten kanpoko itxura da ezagutzera bultzatzen zaituena. Halere izakerak eragin handia dauka.
- 7 - Bai, oso. Maitasuna biko-teari egunero adierazi behar zaio eta San Valentin eguna ere aproposa da horretarako.



**JATETXEA
ETA
TABERNA**

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21



OTATZA

Baserría - Sagardotegia

Otatza auzoa • ☎ 80 17 57 • ZERAIN (Gipuzkoa)

Garajeak

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.
☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.
☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.
☎ 74 02 81
9etatik aurrera

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifizioan. Prezio onean.
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
☎ 74 13 67

Salerosketak

Karnabaletarako HAUREN JANTZI BATZUK saltzen ditut: txanogorritxu, dama antigua eta arabe.
☎ 74 14 69

Bilbo-Frankfurt-Coloniarako HEGALDIA SALTZEN DUT. Otsailaren 17rako da baina eguna alda daiteke. 20.000 pta.
☎ 74 42 26

KARABANA BAT saltzen dut. 5 plazatakoa da eta egoera oso onean dago.
☎ 74 37 84

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria.
☎ 74 26 26
☎ 74 20 31
Gauz

BMX KLASEKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.
☎ 74 34 05

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.
☎ 74 17 60

AEG markako erropa lehortzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.
☎ 74 34 06

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.
☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.
☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.
☎ 74 11 28 Juani
☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.
☎ 74 13 97
8,30etatik aurrera

Bestelakoak

Larunbatean BETAURREKO BOROBIL BATZUK galdu nituen San Frantzisko kalean, King-Kongetik beherantz.
☎ 75 60 77 Soraia/Begoña

EGUZKITAKO BETAURREKO BATZUK galdu ditut. UZURIneko funda granatea dute.
☎ 74 37 84

CARITASEk sukaldarako eta salarako ARMARIO BAT behar du.
☎ 74 15 09
☎ 74 12 57

Lana

Bilboko sendi batek AU-PAIR BAT hartuko luke Northamptonen (Inglatera). Etxean erdaraz hitzegiten da baina goizeko 9etatik arratsaldeko 3,30ak arte libre egongo litzateke.
☎ 74 15 73

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.
☎ 74 41 77 Maria
☎ 74 22 77 Iratxe

3 urteko neskatxo bat zaintzen dut. HONEKIN JOLASTUKO LUKEEN BESTE BAT zainduko nuke.
☎ 74 12 26
4etatik 8etara

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 41 75 Txari

Mutil euskalduna aste osorako EDOZEIN LAN EGITEKO eskaintzen da. Gidatzeko karneta B1.
☎ 74 23 30 Josu


OHoko irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.
☎ 74 01 48 Alazne

Etxebizitzak

LOGELA BAT alokatuko nuke, sukaldea erabiltzeko aukerarekin.
☎ 74 41 32 Susana

LOKAL BAT daukagu alokatzeko Ernuaranbiden 16 - 2. solairua. 325 m².
☎ 75 19 44 Mari Luz

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Los peores años de nuestra vida"

LARUNBATA

12,00 ELKARRIREN MAHAI INFORMATIBOAK

✓ Plaza Handian

19,30 ELGOIBARKO I. BOLO TXAPELKETA

Azken tiraldia

Ondoren **SARI BANAKETA**

✓ San Pedron

19,30-22,15 ZINEA

"Los peores años de nuestra vida"

IGANDEA

16,30 ZINEA

"Vuelven los mejores"

19,30-22,15 ZINEA

"Los peores años de nuestra vida"

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Los peores años de nuestra vida"

ASTEARTEA

17,00 IPUIN KONTALARIA

Kontalaria: Virginia Imaz

✓ Udal Liburutegian

22,15 ZINEA

"Asesinos natos"
(Ikuslearen eguna)

ASTEAZKENA

09,00 IRUDI BIZIAK-ZINEA

OHOko haurrentzat

"Mano a mano con papa"

✓ Herriko Antzokian

OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Todo es mentira"

ZINEA



Asesinos natos

Zuzendaria: Oliver Stone
Antzezleak: Woody Harrelson, Juliette Lewis, Robert Downey Jr.

EEBBetan biolentzia nagusitzen ari da, pertsona onenak, arruntenak eta normalenak hiltzen ari baitira. Oliver Stone zuzendari ipar amerikarrak gaur egungo gizartearen gehiegikeria hauek erakusten dizkigu ispilu deformatu bat bailitzan, biolentziaren satira bat eginez. EEBBetan gertatuko bi sarraski izugarriren bidez, komunikabideek biolentzia nola esplotatzen duten erakusten du, audientzia eta difusio indize altuenak lortzeko etengabeko lehian.

txandak

FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
11, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
12, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
13, astelehena:	Ormazabal	Anduaga
14, asteartea:	Ormazabal	Anduaga
15, asteazkena:	Ormazabal	Anduaga
16, osteguna:	Ormazabal	Anduaga
17, ostirala:	Yudego	Anduaga

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Placentxi
Te. 75 13 841

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42/75 60 27

OKINDEGIA:

12, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

ZINEA





Los peores años de nuestra vida

Zuzendaria: Emilio M. Lazaro.
Antzezleak: Gabino Diego, Ariadna Gil, Jorge Sanz.

Bi anaia, Alberto bata (Gabino Diego), eta Roberto bestea (Jorge Sanz). Guapoa bata, eta ez hain guapoa bestea. Albertok ez dauka Robertok bezain esku ona emakumeekin. Horren sudur zatarrarekin... Somalia sentimental batean bizi omen da Alberto eta bere anaia, berriz, emakumez betetako mundu batean. Baina egun batean, Maria ezagutuko du Albertok, eta berehala maitemindua dagoenaz ohartuko da. Baina Maria ez da Albertoz maitemindu.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

ROKE TABERNA

ERRETXINDI AUZOA, 1. ☎ 74 37 60

IHAUTERIETAN KUADRILENTZAKO
MENU BEREZIAK:

1.200 pta

Aurrez enkarguak hartzen ditugu

Goizeko 9 etatik irekita

EGUNEROKO MENUAK

ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

DUGU!

1995eko maiatzean UDAL HAUTESKUNDEAK direla eta **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak** **ZERA ADIERAZTEN DU:**

Elgoibarko herria, % 70a euskalduna edo ia euskalduna izanik, ahalegin serioa egiten ari dela laster batean herri euskalduna izateko.

Ahalegin honetan administrazioak eta politikoeak aitzindari eta eredu izan behar dutela, datozen lau urteotan alkate eta zinegotziek euren funtzioak, batez ere, euskaraz beteaz.

Horregatik **ELGOIBARKO ALDERDI POLITIKOEI ZERA ESKATZEN DIZUEGU:**

- Alderdi bakoitzeko zerrendaburua edo alkategaia bere eginbeharrak euskaraz burutzeko gauza izatea.


- 90-94 legealdian izan duzuen zinegotzi kopurua kontutan izanik:

- EAJ-PNVri, lehenengo zortzi hautagaiek euskaraz jakitea.
- HBri, lehenengo laurek euskaraz jakitea.
- EAri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
- PSE-EEri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
- Beste alderdiren bat aurkeztuko balitz, hautagaien zerrendan euskaraz dakien ahalik eta hautagai gehien egotea.

- Udal Batzordeetako lehendakariak euren betebeharrak euskaraz egiteko gauza izatea.

- Hauteskundeetako kanpainan, euskaldunok Elgoibarren garen portzentaia aintzakotzak hartuz, euskarari lehentasuna ematea.

Eskaera hauek, Herriaren onerako, kontutan hartu eta beteko dituzuelakoan,

 **ELGOIBARKO IZARRA**
Kultur Elkartea

